



Egun gutxiren buruan hasiko dira Ama Kandida etorbidean aurreikusten diren 97 etxebizitza eraikitzen

- **Tokiko Gobernu Batzordeak behin betiko eraikitze lizentzia eman dio aipatu eremuari.**
- **Blokeo egoera gainditu eta hilabete gutxian garapen urbanistiko hau martxan jartzea ahalbidetu du udal gobernu berriak.**
- **Eraikuntza berriak ezinbestekoak izango dira Andoaingo garapen urbanistikoan**

Andoainen, 23-09-15.- Andoaingo Udaleko Tokiko Gobernu batzordeak Ama Kandida etorbideko eremuan 97 etxebizitza, trasteleku, garaje eta lokal eraikitzeko lizentzia eman du. Hala, berehala hasiko dira aipatu etxebizitzak eraikitzen. Aste honetan izan den hirigintza batzordeak proposamena aho-batez onartu ostean hartu du erabakia udal gobernuak.

Garapen urbanistiko honek oso prozesu luzea bizi izan du, baita blokeo egoera ere aurreko agintaldiaren amaiera aldera. Baina udal gobernu berria pozik agertu da lizentziaren baimentzearekin; uda aurretik aferaren blokeo egoera askatzeko ahalegin berezia egingo zuela aurreratu zuen, baita irailerako eraikuntza baimen guztiak emanda egotea espero zuela ere. Esandako eta emandako epeak bete ditu, horrela, udal gobernuak.

Ama Kandidaren garapen urbanistikoak itzuli berria emango dio etorbide horretako inguruari, baita Andoaingo herriari ere.